

Diru-Iturriak

Psikologoak kontratazeko dirua **bi iturrietatik** aterako dugu:

Alde batetik, **landareen** salmentatik ateratako **mozkinak** psikologoetan inbertituko ditugu, baina diru berarekin negozio bera mantendu behar da, orduan psikologoentzako geratuko den dirua ez da hain handia izango. Beraz, landareen haziak, loreontziak eta kontratatu beharreko lorezainak landareen etekinekin ordainduko da eta esandako psikologoak alokatzeko behar izango dugun diruaren zati bat ere mozkin hauekin izango da.

Bestalde, **Eusko Jaularitzak eta eskola pribatuek** ere gure **zerbitzua ordaindu** beharko dute. Hau da, Bizkaiko eskola pribatuek "Psycho Flora" enpresarekin arituko dute. Azken eskola hauek enpresako langileak kontratatuko dituzte zerbitzuak emateko; hori dela eta, ikastetxeek ordainduko diote enpresari diru-kantitate bat, geroago enpresak kudeatuko duena beharrezkoak diren lehengaiak, soldatak... ordaintzeko. Halaber, azken diru-iturri hauek elkartuko dira landareen salmentarekin, hortaz, lortutako diru-sarreraren totala "Psycho Flora" mantentzeko beharrezkoa den diru kantitatea da. Honenbestez, enpresak enpresa-jarduerak aurrera eraman ahal izango ditu: Landareen ekoizpen-prozesua, Langileen kostu finkoak...

Hala ere, hasieran dirua behar izango dugu landareen negozioa irekitzeko eta negozioa hazten den bitartean hau mantentzeko, etorkizunean landareekin mozkinak irabazi ahal izateko eta horrela gure psikologoaren zerbitzua ematen hasteko. Beraz, maileguak behar izango ditugu, bai estatuak bai udaletxeek ematen dituztenak.

Hasteko, **Espainiako Estatuak ICO**ren bidez (Kreditu Ofizialaren Institutoa) autonomoei eta ekintzailei maileguak eskaintzen dizkie. Mailegu hauek banku espainiar guztietan eskatu ahal dira (Caixabank, Banco Santander, BBVA...) eta bezeroak daukan helburuaren arabera, gehienez 12,5 milioi euro ematen dizkiete bezero bakoitzari. Gainera, ICOren maileguak, beste maileguekin konparatuz, interes baxuak ditu. Izan ere, guk ez dugu kantitate hain handia beharko, beraz gutxiago eskatuko dugu eta ez diegu banku bakoitzari haien maileguak eskatuko ez ditugulako beharko.

ICOren mailegua eskatu ahal izateko hurrengo baldintzak bete behar ditugu: berankorren zerrendan ez egotea, enpresa plan bat izatea, egoitza fiskala Espainian izatea... Gure ideiak baldintza guztiak beteko ditu, beraz ez dugu inolako arazorik izango hasieran maileguak jasotzeko aukerak izateko.

Udaletxei dagokionez, **Bilboko Udalak**, "**Bilbao Ekintza udal-sozietate**"-aren bitartez, Lanbideren tokiko erakunde laguntzaile gisa, enpresa-ideia bat garatu nahi duten ekintzaileentzako 81 plaza eta enpresa-jarduera berriak abian jartzeko beste 12 plaza hautatzeko prozesua hasi du. Laguntzen zenbatekoa 1.000 € eta 1.300 € artekoa izango da ideia ekintzaileak garatzeko, eta 1.500 € eta 1.950 € artekoa enpresa-ekimenak abian jartzeko. Guztira, 93 plaza emango dira, eta horietatik 81 ekintzailetza-kezka duten pertsonen enpresa-ideiak garatzeko izango dira, eta beste 12 negozio-plan bat garatuta duten eta enpresa-jarduera berriak abian jartzen aurrera egiten duten pertsonentzat. Kasu horretan, laguntzek 1.500 € edo 1.950 €-ko balioa izango dute, 30 urtetik beherako bost


personarentzat. Ordainketak bi zatitan egingo dira: % 50 dirulaguntza ematen denean, eta beste % 50 EJZn alta eman ondoren. Azken diru-languntza horiek enpresaren sortzailei bidaliko dira, hain zuzen ere, proiektuak aurrera eramateko ahalmena izatearren.

Horretarako, udalak **94 420 53 60 telefono-zenbakia** edo big@bilbaoekintza.bilbao.eus helbide elektronikoa jarriko du, enpresa bezeroekin harremanetan jartzeko.

Taula honetan proiektuaren hasieran izango ditugun diru-iturriak agertzen dira, eta bakoitzak zein ehunekotan parte-hartuko duen eta dirua zertarako erabiliko dugun agertzen da:

Diru-iturriak	Ponderazioa	Diruaren erabilera
Landareen mozkinak	%5	Negozia mantentzea eta aurreztea
Estatuen eta ikastetxeen ordainketa	%0	-
ICO	%60	Haziak eta loreontziak erostea
Udaletxeak	%35	Lorezainak kontratatzea


Hasierako Diru-Iturrien Ponderazioa



Bestalde, gure negozioekin haztea lortzen dugunean, diru-iturrien ponderazioa eta erabilera hurrengoak izango da:

Diru-iturriak	Ponderazioa	Diruaren erabilera
Landareen mozkinak	%30	Loreontziak eta haziak erostea eta lorezainak eta psikologoak kontratatzea
Estatuen eta ikastetxeen ordainketa	%70	Psikologoak kontratatzea eta beharko dugun materiala erostea
ICO	%0	-
Udaletxeak	%0	-

Psycho Floraren Diru-Iturrien Ponderazioa



ICO: [ICO Empresas y Emprendedores](#)

ICOren interesak: [Tipos de interés TAE](#)

- **Banco Santander:** [Líneas ICO y Fondos Europeos - Banco Santander](#)
- **BBVA:** [Préstamos ICO para Empresas y Emprendedores](#)
- **Caixabank:** [CAIXABANK/empresa/financiación](#)